

# noaua

Ucin aldeko isurketek  
kezka eragin dute

Aginagako Parrokiak  
50. urteurrena  
ospatuko du igandean

Erraustegiaren  
Aurkako Taldea  
eratu da



**IV. Dantza Eguna**

**Aurtengoa ere, gogoratzekoa**



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**Erdi eta goi mailako zikloak  
A, B eta D Ereduak**

**www.lhusurbil.com**



**Maiatzak 7, 11 eta 14  
ATE IREKIAK**

**943 36 46 00**




**BIDAIA TALDEAN**

Irteera Lasarte-Oriatik

**ISLANDIA**



**aurora borealak**  
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -



Erreserbak eta informazioa bulegoan



**NOAIA BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10  
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa  
T. 943 373 613  
info@noaibidaiak.com  
www.noaibidaiak.com

**ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA**

**188.000 € tik**

**AZKEN  
ETXEBIZITZAK!**



**12 ETXEBIZITZA**  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

**VIVIENDAS LANIN S.L.**

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

**www.viviendaslanin.com**



## Albiste iruditan

# European Environmental Bureau-ko hondakin politikako arduradunaren bisita

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteko kideen eta Usurbilgo Udalaren eskutik, Piotr Barczak-ek udalari honetako esperientziaren nondik norakoen berri jaso zuen. "Usurbil eta Gipuzkoako beste udalari txikien esperientziak eredugarriak dira, asmo handiko hondakinen kudeaketa ekonomia zirkularrekin bateragarria dela ikusteko. Europar Batasunak lege aldaketa sorta bat proposatu zuen Europar Batasuneko Hondakinen Zuzentzarauan, hondakinen kudeaketa ekonomia zirkularrean lezrokatzeko. Usurbilgo herritarrek ondo aurreratuak daude garapen honetan". Bisita eta gero, prentsa ohar bidez jakinarazi zuten.

### "Sarritan zuen adibidea ematen dut Bruselan, jarraitzeko eredu gisa"

"Zuen esperientzia esperientzia eredu-garri gisa zabaltzen jarraitzea espero dut eta ez herritarren oposizioarekin erai-



kitako erraustegi batek zapuztutako esperientzia gisa, ekonomia zirkularren ideiarekin guztiz kontrajarria dagoena. Erraustegiaren aurkako zuen borrokan babesten zaituztet eta birziklatzen eta konpostatzen izan dituzuen lorpenengatik. Zorte on horrekin! Europa zuei begi-

ra dago. Eskerrik asko gonbitagatik".

### Dantza Egunarekin txundituta

Oroitzen onak daramatza Usurbildik: "Bereziki polita, apirilaren 23ko Dantza Eguna. Eskerriko asko!", adierazi du ohar bidez Piotr Barczakek.

## Laburrean

### Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea, ostiral honetan, apirilaren 29an. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko mobilizazioari, 20:00etan emango diote hasiera, Mikel Laboa plazan.

### Maiatzaren 2an astelehena, odol-ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteko bi-hileroko hitzordua hemen da; odol emateko saioa antolatu dute maiatzaren 2rako, 18:00-20:30 artean anbulatorioan. Informazio gehiago: gotatanta.com

### Maiatzaren 14an, 1971koen kinto bazkaria

Saizarren ospatuko dute, maiatzaren 14an. Dena den, 12:00etan elkartuko dira Bordaxo tabernan. Izen emateko zerrenda Txiriboga tabernan jarriko dute. Maiatzaren 12a baino lehen apuntatu beharko da.

# noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldia. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:** Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda, publikitatea@noaua.eus

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Maialen Unanue

## (Des)erakartze efektua

nor gutxi utzi zuten hotz Javier Marotok (PP) Gasteizko alkate zela egindako adierazpenek. Etor-kinek ez dutela gizartean integratu nahi, eta laguntzetatik soilik bizi nahi dutela esan zuen -"zenbait herrialdetatik etorritakoek bereziki"-.

Sestaoko alkate Josu Bergara (EAJ) pixka bat harago joan zen, eta, behar izanez gero, etorkinak herritik "ostiaka" bidaliko zituela esan zuen. Kasu horretan, alderdiko eta herriko kide asko atera ziren haren defentsan. Baina esandakoen larritasuna Marotorenaren parekoa zen.

Eta, horrela, horrelako adierazpen anekdotiko baina zitalekin osatzen dira aurreiritziak, besteak beste. Emaizta deigarriak ditu duela gutxi Ikuspegi immigrazioaren euskal behatokiak Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban eginiko inkesta batek. Galdetuak izan direnak "toleranteak" dira etorkinekiko, baina jasotzen dituzten diru laguntzen inguruan galdetuta hasten dira "bainak". Deigarria da, baita ere, etorkinen kopuruarekiko dugun pertzepzioa: galdekatutakoaren arabera, biztanle-

riaren %18 ordezkatzen dute etorkinek, baina, egiaz, %8 dira.

Azken adierazpen polemikoak Gipuzkoako Foru Aldundiak egin ditu. Aurreko Aldundiak martxan jarritako DSBL Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza kenduko dutela iragarri du, "erakartze efektua" eragiten duela, Gipuzkoa "irla bat" bihurtzen duela eta, horrek, berekin dakarrela "migratio artifiziala". (Grazia, edo negargura, egin zidan erakartze efektua aipatzen zuenean, "errespetuz diot" gehitzen ziola, matizatuz bezala). Bat. DSBL kentzea erabaki aurretik, laguntza horren inguruko txosten bat eskatu zuen Aldundiak, "erakartze efektua" eragiten zuelakoan: txosten horretan "erakartze efektua" hainbatetan aipatzen bada ere, laguntza horrek ez duela Gipuzkoako etorkin kopurua handitu ipintzen du. Argi: "Populazio migranteak herrialdean duen tamainan eragin adierazgarririk ez du izan". Bi. Gipuzkoa irla bat dela argudiatu dezakezu laguntza bat kentzeko? Baiezkoan bazaude: EAE ez da beste irla bat diru sarrerak bermatzeko errentarekin? EAE ez da irla

bat aspektu askotan Espainiako beste autonomia erkidegoekin alderatuta? Hiru. "Migratio artifiziala" aipatu dutenez, zer da "migratio naturala"?

Beti dago, gainera, edozein aukera aprobeztatzen duela iruzurgileak mahai gainera ateratzeko. Batek baino gehiagok joko du esatera ea zer pasatzen den iruzurgileekin, benetan egongo dela lanik egin ez eta laguntzetatik bizi denik. Agerikoa da iruzurrak alde guztietan daudela. Kasu honetan, %0,7. Ehuneko horrek baldintzatu behar du laguntza horren beharra duten eta iruzurrik egin ez duten beste %99,3? Benetan? DSBL jasotzen duten 1.422 bizikidetzak unitateak beste diru laguntzarik jasotzen ez duten biztanleak direla erakutsi du, gainera, Aldundiaren txostenak.

Aukera izanda, nork ez luke nahi lan bat, soldata bat, laguntzen menpean ibili beharrean? Eta, burura datozkit beste zenbait galdera. Zer nolako erakartze efektua eragin dezake Gipuzkoa bezalako lurralde batek, bertan bizitzea hain garestia izanik? Nork aguantatu dezake urte-

bete bertan, inolako diru sarrerarik gabe? Galdetu etxetik alde egin nahi duen bertakoari: etxe bat bai alokairuan bai jabetzan hartzeko, oso garestia da Gipuzkoa. Eta, zer esanik ez, lan-baldintzak dauden bezala egonda: gaur lana daukazu, baina bihar nork daki? Hilabete langabe egon ostean, bi hilabeterako lana topatzen duzu, eta gero? Nork alde egin dezake etxetik egoera horretan? Alokairu/salmenta prezio garestiez gain, zer diogu soldatez? Norbaitek bakarrik bizi nahi badu, ze independentzia klase izango du soldataren %70 horretara bideratu behar badu?

Zertaz ari gara hitz egiten, lan egitea bera ere pribilegio bat denean gure artean? Zer esango du atzerititik etorritako batek, zeruarekin eta lurrarekin baino etortzen ez direnek, hemen inork egin nahi ez dituen lanak, inork nahi ez dituen baldintzatan egitera behartuta badaude? Guk lana topatzeko zailtasuna badugu, zer ez ote dute aguantatu behar etorkinek lan eske doazenean?

Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | **Maialen Unanue** | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Imanol Ubeda

### Ika-mika

## Prekarietateak gaixotu eta hil egiten du

XI. mendean aurrera goaz, jendarteak sekulako bilakae-ra izan du eta sinesgaitza bezain onartezina bada ere, oraindik, lanera joatean gure bizitza arriskuan jartzen dugu. Hori da egunero milaka langilek bizi duten errealitate gordina. Datuak hor daude, 2015ean 55 heriotza istripu izan ziren eta 2016an jada 16 langile hil dira istripu baten ondorioz Euskal Herrian. Kopuru hau gorantz doa.

Lanean gaixotu egiten gare-

la ezkututzen saiatzen dira; hain zuzen ere kalkulatu da laneko gaixotasunen %83 ez dela aitortzen. Baina, amiantoa, silizea edo dena dalakoaren ondorioz gaixotu nahiz hildako langileen zerrenda luzea da oso.

Bestalde, gihar eta hezurduraren lesioak, antsietatea, depresioa, infartuak, suizidioak eta abar gero eta gehiago gertatzen dira. Hauek, laneko estatistika ofizialetan azaldu ordez, gaixotasun arrunt moduan

azaltzen dira gehienetan.

Errealitate horren arrazoiak ezaugarriak dira, prekarietatea eta prebentzio neurri eskasak. Patronalak etekina soilik du helburu, langileen bizitza arriskuan jarri behar badu ere. Eta instituzioak, arduragabeak, dugun babes apurra (OSALAN...) murrizten dute.

LABek lan osasuna eskubideak izan dadin borrokatzen jarraituko du, horretarako egin dezakegun borrokarik hoberena prekarietatea-

ren kontrako borroka indartzea dela ulertzen dugu eta horrekin batera lantokietan prebentzio neurriak exijitzeko ekintza sindikala indartu.

Egoera honen aurrean mobilizazioan sakontzea dagokigu. Lan osasunaren nazioarteko eguna den apirilak 28an, maiatzak 1ean eta beharrezko den guztietan.

Eskubideak aktibatuz langileok martxan

LAB Buruntzaldea

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: maiatzak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 2.

# Zer gertatzen ari da Ucin aldean?

**A**spaldikoa da kezka. Aspaldikoa izanik ere, ez du etenik. Aldiro berritzen baita. Zumar-tegitik isurtzen den keaz eta kiratsaz ari gara. Ucin enpresatik datorrena, zehatzago esanda. Apirilaren 18an astelehena keak eta usain txarrak errepikatu ziren. Eta honek hainbat herritarren kezka eragin zuen. Aspalditik datorren kontua izanik, ez dago azalpen argirik ematerik.

Herritar batek NOAUA!ra igorritako email bateko hitzak dira ondokoak: "gaur (apirilak 18 astelehena) iluntzeko 21:30ean ikaragarritzko laino beltza ikusi dugu etxetik, Kale-zartik. Lainoa Zumartegi poligonotik ateratzen zela zirudien, eta herriaren gainetik zabaltzen ari zen iparekialderuntz. Hortik gutxira leihoak itxi behar izan ditugu heltzen zen kiratsarengatik.

112-ra deitu dugu, ea istripuren bat egon den poligonoan. Udalarire honen berri eman diogu. Beste berririk ez dugu izan".

Udal iturriek aipatu digutenez, gau horretan bertan Ertzaintza bertaratu zen. Eta apirilaren 20an, isurketa eman zenetik bi egunera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak intzidentzia bat ireki zuen.

## "Nazka nazka eginda gaude"

Albistea sare sozialetan zabaldu genuen, eta Josu Diaz de Otalorak iruzkin hau igorri zigun: "Tira, kea Ucinetik ateratzen zen. Ondoan bizi



**Apirilaren 18an eginiko argazkia, Joxe Martin Sagardia plazatik egina. Gaiaz kezkatuta, udal ordezkariak Ucinetakoekin batzekoak dira laster.**

## APIRILAREN 18AN

### Laino beltz batek hainbat herritarren kezka eragin zuen

gara eta astelehen gauekoa handia izan zen, baina ez da salbuespena. Bide batez, esango dut enpresa honek normalki gauak eta eguraldi txarreko egunak aprobetxatzen dituela ez dakigu ze hondakin erraus- teko, lo gaudela arnasten duguna noski. Nazka nazka eginda gaude! "

## Airean zabaltzen diren partikulak

Herritar honekin jarri ginen harremanetan, eta orain aste batzuk bizilagun batzuk "ingurumen zinegotziarekin bildu ginen udal- txean. Azaldu zigunenez, Ucinetik bi labe ditu, bat berria eta bestea zaharra. Zaharraren filtroa zikin dutela eta agian abuztuan konponketak egingo dizkiotela. Baina hori dena enpresaren bertsioa da. Guk aipatu genion kea eta usaina baino garrantzitsuagoa dela inguruan zabaltzen diren elementuak".

## Ucinetako buruekin biltzekoa da Xabier Arregi alkatea

Udalak badu herritarren kezken berri. Are gehiago, harremanetan da enpresarekin "eta azken egunetako ke-isuri gaia argitzeko, Usurbilgo alkate Xabier Arregik bilera egingo du Jose Maria Ucinetako buruekin eta ikuskapen bisita egingo dute hurrengo egunetan, gertatua argitu eta berriz errepika ez dadin". Hala azaldu digute NOAUA!ra igorri diguten prentsa ohar bidez. Azpian duzue Udalaren idatzia.

## Abenduan antzeko egoera eman zen

Ez da lehen aldia. Azken urteotan maiz gertatu dira antzeko kasuak. Iazko abenduaren 9an ere, iluntzean eman zen. Ke laino batek herri erdigunea eta inguruak hartu zituen. Hasiera batean, behe laino edo lanbroa zela zirudien, baina ez. Herritarren artean kezka eta eragozpenak sortu zituen ke lainoa zen. Iluntze hartan ere, Udaltzaingoak herritarren hainbat kexu jaso zituen, Kaxkoan eta inguruetara zabaldu zen ke lainoagatik. Keak begietan eta eztarrian eragozpenak eragin zizkien zenbait herritarrei. Haize handirik ez zebilen gainera, eta ke lainoari desegitea kosta zitzaion. Itxura guztien arabera, ke hura Ucin ingurutik zetorren, apirilaren 18ko iluntzean bezala.

# Usurbilgo Udalak kexu eta irudien bilduma bat igorri du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailera

Gertaera honen harira, hau da Udaletxetik igorri diguten prentsa-oharra: "Apirilaren 18an Ucinetik ke asko ateratzen zela-eta, zenbait herritar Udalarekin harremanetan jarri ziren, gertatzen zena salatzen. Herritarren kexu hauek zirela-eta, Ertzaintza Ucinera gerturatu zen. Biharamunean, Usurbilgo Udaleko ingurumen zerbitzuak bezperako isuriari buruzko azalpenak eskatu

zizkien enpresako arduradunei, aldi berean, Eusko Jaurlaritzako ingurumen teknikariei ere, jasotako kexen berri emanez.

Apirilaren 20an, asteazkenarekin, Ucin enpresako arduradunek erantzun zuten, azalpen garbirik eman gabe. Jaurlaritzako Ingurumen sailak, bere aldetik, intzidentzia bat ireki zuen Udaletik jasotako informazioarekin.

Usurbilgo Udalak harreman zuzena du enpresarekin eta azken egunetako ke-isuri gaia argitzeko, Usurbilgo alkate Xabier Arregik bilera egingo du Jose Maria Ucinetako buruekin eta ikuskapen bisita egingo dute hurrengo egunetan, gertatua argitu eta berriz errepika ez dadin.

Bere aldetik, Usurbilgo Udalak 2015eko ekainetik Udalean jasotako



**2012an, ITAYAK hainbat elkarretaratze egin zituen.**

kexa eta irudien bilduma bat igorri du Eusko Jaurlaritzara eta Ucinera".

# 25 urtez, gazteen bidelagun



“Arrazoi ezberdinengatik DBH ikasketekin jarraitu ezin duten ikasleei alternatiba-baliabide errealak eskaintzen dizkio”.

**D**errigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), formazio aldaketa baten beharrean aurkitzen diren gazteen bidelagun izaten darama 25 urtez, garai batean Agerialden, eta egun Atallun kokatua dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketa Programak. Mende laurdena igarota, zerbitzuaren balantzea egiteko unea heldu zaie egitasmo honetako sustatzaileei.

Ona da egiten duten balorazioa. Oinarrizko Lanbide Heziketa Programak, “arrazoi ezberdinengatik DBH ikasketekin jarraitu ezin duten ikasleei alternatiba-baliabide errealak eskaintzen dizkio”. Hezkuntza sisteman aurrera segitzeko prestakuntza eskaintzen dute. DBH-ko titulua eskuratzeko aukera ematen dute; Erdi Mailako Lanbide Heziketarako

eta lan munduan murgiltzeko sarbidea ere bada.

Prestakuntza gune honen erdigunean beti gaztea dago, gazteak bizi duen unea eta gazteak dituen beharrak. Eta gazteok beti alboan dute hezitzaile talde bat, beti gazteon garapenean inplikatuak. Lanbidea dute tresna eta ardatza, gaztea motibatuzko. Eta lanbidetik “artikulatuko dira ikaskuntza arautuak eta heldutasuna lortzeko estrategia metodologikoak”.

Bi urteko hezkuntza eskaintza honen ostean, “ikasle gehienek bere bidea bilatzen dute”, bai maila pertsonalari, profesionalari edo ikasketei dagokienean. Garrantzitsua da hain zuzen, Atalluko ikastetxean egiten duten lanketa pertsonala. “Heldutasun pertsonala lantzen eta garatzen saiatzen gara. Auto-estimua,

motibazioa, konfiantza bere buruarengan, errespetua (norbera eta besteengan), ahalduntzea, jarrera eta lan-ohiturak”, adierazi digute.

## Sistema arautuan egun

Mende laurden honetan, izen aldaketak izan ditu zerbitzuak. Baina jauzi garrantzitsuena ziurrenik, ez arautu izatetik arautu izatera, Lanbide Heziketako sisteman integratua egotera igaro zenean eman zen. Lanbide Hastapena izatetik, Oinarrizko Lanbide Heziketa Programa izatera pasatakoan. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin sinaturiko 4 urterako akordio baten bidez, Udalarena da egun, Atalluko ikastetxe publikoa kudeatzeko eskumena.

## Praktika guneak nonahi

Aurreko ikasturtean, ile apainketa eta edergintzara, sukaldaritza eta gozogintza sektoreetan lanean diharduten 23 enprekin hitzartu zituen praktikak Usurbilgo Udalak. Baina urte guztioan, Donostia, Buruntzaldea, Oarsoaldea eta Urola Kostako askoz enpresa gehiagorekin sinatu ditu Udalak, halako hitzarmenak.

Ikasleak lan munduan murgiltzen hasteko bitarteko ezinhobeak dira praktika saiook. Baina honez gain, herriko bizitzan ere parte hartzen dute. Usurbilgo herriarentzat baliabide izan nahi dutela gogorazten digute. Hala, sukaldaritzako ikasleek Ikastola Eguneko bazkaria prestatu izan dute, baita hainbat luntx herrian antolatu izan diren ekitaldi edo ekimen ezberdinetarako.

Ile-apainketa ikasketak egiten dabiltzanak, Udarregi Ikastolakoek inauterietan eskaintzen duten ikuskin-zunetako prestaketa lanean parte hartu izan dute, proiektu errealak bideratu izan dituzte baita Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaile edota ikasleen guraso eta senideekin...

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**USURBIL AUTOAK**  
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

**Ford**

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**

Zumartegi industrialdea **943 36 10 79**

# 2014-15 ikasturteko emaitzak

## 1. maila gainditu eta bigarrenerako matrikulaturiko ikasle kopurua:

■ 26 (11 ikasle ile-apainketa ikasketetan, 15 sukaldaritza-koetan).

## Ile-apainketa eta estetika ikasketetan:

■ Graduatua lortu dutenak: 8.  
 ■ Praktikak amaituta lana lortu dutenak: 4.  
 ■ Erdi-mailako ziklo baterako matrikulatu direnak: 2.  
 ■ Goi mailako sarbide froga prestatuko duena: 1.

## Sukaldaritzan

### eta jatetxe-arloan:



Oinarrizko Lanbide Heziketa Programaren baitan, oinarrizko titulua lor daiteke sukaldaritza eta jatetxe-arloan.

■ Ikasle kopurua: 23 ikasle. lortu dutenak: 6. nak: 1.  
 ■ DBH graduatua lortu dutenak: 3. ■ Cebad-en matrikula egin dutenak: 1. ■ Sukaldaritzako ikastaroak (Lanbide): 2.  
 ■ Praktikak amaituta lana ■ EPA-n matrikula egin dutenak: 1. ■ Erdi maila. Sukaldaritza: 1

# 2016-17 ikasturterako eskaintza

## Espezialitateak

■ Oinarrizko titulua ile-apainketa eta estetikan.  
 ■ Oinarrizko titulua sukaldaritza eta jatetxe-arloan.

## Iraupena

■ Bi ikasturte, 2.000 ordu guztira, 2016ko irailaren 1etik 2018ko ekainaren 30era. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30 artean.

## Nori zuzendua

■ DBHko ikasketetatik Lanbide Heziketara igaro nahi duten 15-17 urte arteko gazteei.  
 ■ DBH amaitu ez, baina formazio aldaketa bat nahi-behar duten gazteei.

## Baldintzak

■ 15-17 urte artean izatea.  
 ■ DBH 3. maila egin izatea; salbuespen moduan, DBH 2.

maila egin izatea.

■ Irakasle taldeak, Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean sartzeko proposamena egin izana guraso edo legezko tutoreei.

## Matrikulazio epea, maiatzaren 25etik aurrera

■ Aurre matrikula: maiatzaren 25etik ekainaren 5era.

■ Lehen mailako matrikulazioa: uztailaren 16tik 21era. Plaza hutsak egonez gero, uztailaren 22an eta 23an.

■ Bigarren mailako matrikulazioa: ekainaren 16tik uztailaren 6ra.

Oharra: plazak egonez gero, ikasle berrientzako matrikulazioa irailaren 1etik urriaren 15era.

  
**Kima**  
 MASAJE LEKUA  
 · KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA  
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
 USURBILGO ATARIA

Zuen  
 publizitatea  
 hemen  
 ☎ 943 360 321  
 publizitatea@noaua.eus

# “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa maiatzean

A skotan munduko txoko ezezagunenak bisitatzera joateko ehunka kilometro egiten baditugu ere, hemen, etxean bertan, ondare oso aberatsa dugu. Baina ez dugu ezagutzen. Dugunaz jabetu, ezagutu, zabaldu eta balorearen jartzen laguntzera dator “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa. Sagardoaren Lurraldeak Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo udalekin eta Donostiako Aquarium-ekin elkarlanean sustatutako erakusketa ibiltaria dugu honakoa. Hernanin izan da ikusgai egunotan. Maiatzean Usurbila dator.

“Erakusketa honetan gure ibaiak, Urumeak eta Oriak, sagardoaren inguruan, eta sagardoaren garraioan izandako garrantzia jaso da. Urte askotan, gure ibai hauek inguruko lurraldeetako bizitzaren antolakuntzan izan duten garrantzia”, zioen Luis Intxauspe Hernaniko alkateak, erakus-



Erakusketa elkarlanean emaitza izan da. Sagardoaren Lurraldeak Aquarium-ekin eta Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalen laguntza izan du.

keta ibiltaria aurkezteko deitu zuten ekitaldian. Oria eta Urumea ibaiak urte luzez gordetako sekretuak aieratzera datorren erakusketan, Usurbili loturiko erreferentzia bat baino gehiago aurkituko dugu. Maiatzaren 13tik 22ra Sutegin ikusgai.

**Larunbat honetan Potxoenean, “Sagarrondotik Sagardora”**

■ Apirilak 30, larunbata

■ Orduetgia: 9:00-13:00.

■ Non: Potxoenean.

■ Gaia: “Landareen bizimodua. Ilargiaren eragina”.

■ Bideratzaileak: Xabier Akizu eta Jakoba Errekondo.

■ Informazio gehiagorako eta izen emateko:

943 361 114

alkartasuna@usurbil.com

alkartasuna.eus

■ Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

## Maiatzaren 9an batuko da berriro Santixabeletako Jai Batzordea

Ekainaren 30etik uztailaren 3ra ospatuko diren festak antolatzen segitzeko Jai Batzordearen hurrengo bilera irekia, maiatzaren 9rako deitu dute. 18:00etan Potxoenean.



Maiatzaren 9a astelehena, Potxoenean.

## “Urrutiko intxaurrak hamalau” herri ikuskizunean izena emateko garaia

16 urte baino gehiago izan eta jaietan abestu, antzeztu, bertsotan jardun, argazkiak proiektatu edota antzeko emanaldi labur bat eskaini baduzu ezin duzu aukera hau galdu. Maiatzaren 15a baino lehen eman izena “Urrutiko intxaurrak hamalau” herri ikuskizunean:

ixabel.agirresarobe@gmail.com  
675 712 383

Eskaini nahi duzuen saioaren zehaztasunak eman. Emanaldian norbanako nahiz talde orok parte har dezake.

## Santixabel jaietako egitarau lehiaketa maiatzaren 20ra arte egongo da zabalik

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 20ra arte egongo da zabalik. Lehiaketako txapeldunak, 500 euroko saria jasoko du eta noski, eginiko lanaren emaitza jaiak hasi aurreko egunetan herritar guztien eskutara helduko da. Zuen diseinu lana sortzen hasiteko lehen pausoa Potxoenean gerturatzea izango da. Egitarauko testua eta oinarriak bertan jaso behar dira. Testu horretan oinarritu beharko da diseinu lana. Argibide gehiagorako: 943 371 999 edo email honetara idatziz: kultura@usurbil.eus

## Udal diru-laguntzak, alegazio epean

Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen Batzorde Orokorrak kultura, kirola, Gizarte Zerbitzuak, ingurumena eta nekazaritza-abeltzaintza eremuetako diru-laguntzen ebazpen proposamena luzatu du. Ebazpenaren berri asteazken honetan ematekoa zen Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. Bertan iragarri ostean, interesdunek alegazioak aurkezteko 10 eguneko tartea izango dute. Maiatzaren 9ra arte hain zuzen.

## Kontu Orokorra 2015, erreklamazio epean

Iazko Kontu Orokorra jendaurrean ikusgai jarri du Usurbilgo Udalak. Erreklamazioak aurkezteko tartea egongo da datozen bi asteotan. “Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin, indarrean dagoen Araudiak ezarritakoa betez, 2015eko ekitaldiko Kontu Orokorra jendaurreko erakusketara jartzen da, hamabost egunez, kontu-hartzailetzako bulegoetan. Epe horretan, erreklamazioak edo oharrak aurkez ditzakete interesatuek, Usurbilgo Udaletxeko Sarrera Erregistroan, bulego orduetan, aurkeztu ahal izango direlarik”, apirilaren 21eko GAO aldizkarian jaso datorrenez.

## Jaietako txupinazoa nork bota

Ekainaren 30ean herriko festak abiatzeko txupinazoa nork botako duen herritarrek erabakiko dute aurten ere. Maiatzaren 20ra arteko epea duzue, zuen ekarpenak kultura@usurbil.eus helbidera helarazteko. Edo paper txo batean idatzi eta Kiroldegian, Sutegin eta Potxoenean jarri dituzten kaxetan utzi ditzakezue.




ERRENTA2015

# ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenaz, aberastasuna sortzeaz eta giza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraltzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen duzun euro bakoitza zugan inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO  
URTEKO AURREKONTUA

# 812M€



# Dantza Eguna, iruditan



Iruñeko Ortzadar, Donostiako Goizaldi eta Usurbilgo Orbeldi Dantza Taldekoek ikuskizun ederrak eskaini zituzten larunbat goiz partean.



Orbeldi Dantza Taldekoen "Kanpaiak jotzean" ikuskizunak harrera ona izan zuen. Dantza Eguneko argazki eta bideo gehiago, [noaua.eus](http://noaua.eus) web orrian ikusgai.

# Erraustegiaren Aurkako Talde eratu berria, giza-kateari begira lanean

Usurbilek ere badu erraustegiaren aurka aritzeko erreferentziatzeko talde berri bat; Erraustegiaren Aurkako Taldea. Larunbat goizean eratu zuten, Artzabalgo ekitaldi aretoan egin zuten batzarrean. Taldearen lehentasun nagusia, maiatzaren 29rako giza-katea lantzea izango da.

Adierazi diguten moduan, osatu bezain laster bilguneak "heldu dio lanari. Joan zen larunbatean eratzeaz gain, zenbait egiteko eta ardura ere banatu ziren bertaratu ziren usurbildarren artean. Egitaraua osatzen doan heinean, xehetasun gehiagotaz informatzen joango gara", adierazi digute Usurbilgo Erraustegiaren Aurkako Taldek.

## Konpromiso-orriak

Halere adi, 5 kilometro luze izango dituen giza-katerako gutxienez 5.000 lagunerekin parte hartzea behar baita. Tartean, gutxienez 400 usurbildar behar dira udalerriri honi dagokion giza-kate zatia osatzeko. "Bertara joan nahi dutenek, konpromiso-orri bat jaso behar dute", jakinarazi dute talde eratu berriak. Orri hau jasotzeko, gerturatu datozen ostiral eta larunbatetan, Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak Sutegi ondoan jarriko duen mahaira. "Erronka, gutxienez 400 usurbildarren konpromisoak lortzea da", gaineratu dute bilgune berriak.

## Datorren astean, giza-katea herrian

Maiatzaren 29ko giza-katea girotzen hasteko, udalerriri mailako giza-katea antolatuko dute maiatzaren 7-8ko astebururako.



Argazkian dira talde berri honen eratze-batzarrean parte hartu zuten kideak.

## LEHEN ZEREGINA

**"Maiatzaren 29an Donostian egingo den giza-katea girotzen hasteko, udalerriri mailako giza-katea antolatuko dute maiatzaren 7-8ko astebururako"**

"Oraindik hainbat detaile lotzeko dauzkagu. Izango duzue honen berri", iragarri dute.

## Erreferentziatzeko taldea

Errausketaren aurkako mugimendua egituratua dago, herri

plataformak osatu dira erraustegiaren kokagunearen bueltan. Erraustegia inguratua dute bilguneok: Aiztondokoia dute Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilen, Ipar Haizea Andoainean edota Aire Garbia Lasarten. Bada baita Zero Zabor Ingurumen Baberako Elkarteak eta zero zabor taldeak, Hernanin esaterako. Usurbilen erraustegiari buruzko herri galdeketa antolatzea eskatzeko Erraustegia Erabakia herri plataforma osatu zuten udazkenean. GuraSOS izeneko erraustegiaren aurkako guraso taldea ere lanean da, indar bizia.

Aldiz, Usurbilen talde erreferente baten hutsunea zegoela sumatu eta talde berri bat osatzeko beharra ikusirik, batzarra egin zuten larunbat goizean Artzabalen. Modu eraginkor eta azkar batean, bildu, koordinatu, komunikatu, informazioa zabaldu eta ekimen edota deialdien aurrean arin mugitzeko bilgunea izan nahi du talde honek. Esan bezala, udalerriri mailan erraustegiaren aurkako erreferentziatzeko taldea izatea. Bilgunea eratzeko batzarra izan zen hain zuzen, larunbat goizean Artzabalen egin eta herri-talde bat bildu zituena.

## 400 usurbildarren konpromisoaren bila

### Ostiral eta larunbatetan

Ostiraletan 19:00tik aurrera eta larunbatetan 12:30etan hasita, maiatzaren 29ko giza-katean parte hartzeko konpromiso-orrien banaketa mahaira Sutegi ondoan. Gutxienez, 400 usurbildar behar dira giza-katerako.

Deitzailea: Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldea.

### Maiatzak 7-8

Maiatzaren 29ko giza-katea girotzeko udalerriri mailako giza-katea Usurbilen.

Deitzailea: Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldea.

### Maiatzak 21, larunbata

Maiatzaren 20tik 22ra, proiektu suntsitzaileen (tartean erraus-

tegiaren) aurkako Txirrinka bizikleta martxa gure artetik igaroko da, "Lurra zaindu, eredu soziala eraldatu! AHT eta proiektu txikitzaileak borrokatu!" aldarripean.

Informazio gehiago: <http://aht-txirrinka2016.blogspot.com.es>

Antolatzailea: AHT Gelditu! Elkarlana eta hainbat eragile sozial eta sindikal.

# Azterketa epidemiologikoa egingo du Foru Aldundiak

**E**rraustegiak herritarren osasunerako arrisku-rik dakarrenik ukatu arren, azterketa epidemiologikoa egin asmo ditu orain Diputazioak. Foru Aldundiko Ingurumen Sailak lankidetzaz hitzarmena sinatu du Biodonostia izeneko Osasun Ikerketa Institutuarekin. Hiru garai ezberdinetan azterketa epidemiologikoa egin asmo dituzte: lehenengo azterketa erraustegia abian jarri aurretik, bigarrena erraustegia martxan jarri eta urtea bete aurretik, eta hirugarren azterketa, handik gehienez 5 urtetara.

## Mediku taldeak ez ditu ikerketok ontzat hartzen

Ikerketok bermerik gabekoak direla adierazi du, erraustegiak gaixotasunak eta hilkortasuna areagotzen duela frogatzen duten hainbat ikerketa daudela dioen Osasuna eta Errausteketa Ikerketa Taldeak (OEIT). “Adostutako ikerketek ez dute inolaz ere bermatzen Zubietan eraikiko den errauste plantak gaixotasunak sortuko ez dituenik. Izan ere 10 urtetik gora behar da toxikoei sortuko dituzten gaixotasunak ezagu-



José Ignacio Asensio Ingurumen diputatua eta Julio Arrizabalaga Biodonostiako ordezkaria.

## IRITZI KONTRAJARRIAK

**Lehenengo azterketa erraustegia abian jarri aurretik egingo litzateke, bigarrena erraustegia martxan jarri eta urtea bete aurretik, eta hirugarren azterketa, handik gehienez 5 urtetara. OEIT mediku taldearen esanetan, “10 urtetik gora behar dira toxikoei sortuko dituzten gaixotasunak ezagutzeko”**

tzeko; eta urte bete lehenago, lehenengo urtean edo 5 urte

beranduago ikerketek ez dute osasunean inongo eraginik aurkituko. Gainera, toxikoen ikerketak egiteak, ez du esan nahi ikerketa epidemiologikoa egingo direnik, hau da, igorriko diren toxikoen maila neurtzeak ez du bermatzen gaixotasunik ez eragitea. Izan ere, toxiko maila txiki batek ez du gaixotasunik ekidingo. Honekin argi geratu da, beldurra dutela osasunean sortu daitekeen eraginaren aurrean eta iragarritako ikerketekin ezingo dute heriotza, minbizi edo sortzetiko malformazio gehiagorik sortzerik ekidin”, adierazi du OEIT-k sare sozialen bidez.

## 5.000 lagun behar dira osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katerako

### Maiatzak 29, igandea

- 11:30 Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katea Donostian, Onkologikoan hasi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza pareraino.
- Luzeera: 5 kilometro inguru.
- Gutxienezko beharrezko parte hartzea: 5.000 lagun.

- Gutxienez, 400 usurbildar.
- Zehaztasunak: “musika, emozioa eta sorpresak” iragarri dituzte.
- 13:00 Ekitaldia Foru Aldundiko egoitza aurrean, Donostiako Gipuzkoa plazan.
- Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

### Zubietan ere izen-emateko aukera

- Apirilak 29, maiatzak 6, 7, 13, 14: Maiatzaren 29ko giza-katerako izen emateko mahaia Kaxkapen. 17:00-19:00h.
- Maiatzak 8, 15: Maiatzaren 29ko giza-katerako izen emateko mahaia Kaxkapen. 12:00-14:00h.

## “Errauste-planta pribatizatzea pelotazo bat da”

Zero zabor eredia sustatu beharrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak hondakinak negozioa egin eta dirua irabazteko baliatu asmo dituela salatu du EHBilduk, Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Negozioa, “herritarrek pagatu beharko duten zabor-tasaren” eta osasunaren kontura egin nahi dutela gaineratu du koalizioak. Diputazioak hondakinak kudeaketa pribatizatzeke duen plana zentzugabetzat jotzen dute, “hurrengo 35 urteetan gipuzkoarren borondatea eta poltsikoa gatibu izango dituelako”.

## Hondakinaren kudeaketan, kontrol publikoaren galera

Herritarrak gatibu eta multinazionalak aberastuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren planak, EHBilduren esanetan, “erraustegia ustiatzeko entramatuak suposatuko du hondakinaren kudeaketaren kontrol publikoa galtzea. Zerbitzu publiko horren giltza enpresa pribatu bati emango zaio 2051ra arte, negozio borobila egiteko, herritarren osasunaren kontura eta gure lurraldearen iraunkortasunaren kontura”.

Aldundiak dituen asmoen aurrean, koalizioak herritarren osasuna eta lurraldearen iraunkortasuna negozio pribatuaren esku ez uztea eskatu dio EAJ eta PSE alderdiei eta iragarri duenez, “EHBilduk herritarren eskubideak eta interesak azken muturreraino defendatuko ditu. Erraustegia Gipuzkoan ez da behar, osasunerako oso kaltegarria da, ez du konpontzen hondakinaren arazoa eta ez du babes sozial nahikorik”.

# Aginagako Parrokiak

**T**xiki geratu zen. Gune handiago baten premia ikusi eta lanari ekin zioten. Hor abiatzen da, 1966an Aginagako egungo Asisko Franzisko Deuna Parrokiako eraikina errealitate bilakatu zuen egitasmoa. Inauguratu zela 50 urte beteko dira igande honetan. Mende Erdiko historia luzea du atzean, urte luzez aginagarren topagune nagusietakoa izan denak. Bertakoen auzolanari esker, bost hamarkadako ibilbidea osatu du. Lerrootan, bizipen eta bitxikeria bat baino gehiago jaso ditugu.

Esaterako, eraikin berria finantzatzeko loteria jokatzeko hasi ziren Aginagan. “Apaizak ekartzen zuen loteria eta herritarrek partizipazioa hartzen zuten”, oroitu digu Aginagako Parrokiako Taldeak. Partizipazioa erosten zuenak, baldintza batekin eskuratzen zuten. “Loteria tokatzen bazen, sariaren erdia eraikin berrira bideratu behar zen”, adierazi digute. Esan eta izan. Loteria jokatzen hasi eta tokatu azkenean. “Partizipazioa zutenek sariaren erdia jaso zuten, beste er-



Autoritateak arraun artean sartu ziren eliza berrian.

## PARROKIA TALDEA

**Urte pare bat edo behar izan omen zituzten eraikin berria prest izateko. “Azkeneko dorrea eta inguruak herriko gazte eta helduek auzolanean txukundu zituzten”**

dia eraikitze lanetara bideratu zen”, kontatu digute Aginagan.

Hortxe sortu zen gune berria eraikitze mugimendua. Loterian irabazitako dirua ondo etorri zen, baina ez zen aski.

## Etxez etxe, dirua biltzen

Horregatik, Aginagako zonalde ezberdinetako herritarrak bildu zituen batzorde bat osatu zuten. Etxez etxe diru laguntza eske joan ziren. Nork zenbat ematen zuen jakina zen Aginagan. “Elizako (zaharreko) sarreraren zerrenda luze bat jarri zen, zeinek zenbat diru eman zuen, bere izen abizenekin jarrita. Beharrezko diru kopurua osatu zenean hasi ziren lanak”, adierazi digute Aginagako Parrokiako Taldekoek. Diru asko bildu omen zuten. Diruaz gain, elizarako organoa eman zuenik ere izan zen.

Obren esleipena giteko le-

hiaketa deitu, eta Madrilgo arkitekto batek hartu zuen lanon ardura. Madrilera joan etorri ugari egin omen zen. Ika-mikak izan omen ziren arkitekto honen proposatu zuen diseinurekin. “Aurrenetik ez zitzaion gustatzen herritar askori eraikin honen diseinua. Oso modernoa zen garai hartarako eta Aginagarako ez zen egoki ikusten. Eztabaida dezente piztu zuen herritarren artean. Baina diotenez, apaizari ere kontra egin omen zion arkitektoak, pulpitoan zuk aginduko duzu baina hemen nik agintzen dut esanez”, azaldu digute.

Arkitektoak esanak bete zituen. Baina zenbait aldaketekin; tartean, “kontraste gutxiago izateko teila zaharrekin egin zen aurrena”. Garai hartan ohikoa zen, Elizari itsatsia frontoi txiki batentzako gunea egokitzea. Kasu honetan egin gabe utzi zuten ordea, obrek eragindako gastua gehiegizkoa ez izateko. Eta aipatu beharrekoa, aleroi gabeko teilatua eraiki zuten, “gerora arazoak ekarri” dituen, aipatzen zigitenez. Gogoan izan, azken urtean berritu behar izan dute.

## Pontea, 1817koa

Zenbat eta zenbat aginagar ez ote dira bataiatu irudiko pontean. Pentsa, 1817koa dugu. Garai batean Aginagako Eliza Zaharrean baliatzen zuten. Gero egungo eraikina inauguratu zutenean, biltegian gorde zuten. Iaz egin zituzten berrikuntza lanetan eraberritu, txukundu eta egungo eraikinean jarri dute berriz. 50 urte bete ditu Aginagako Elizako eraikinak, 200 urte beteko ditu ponteak 2017an.



Aginagako elizan den ponteak 200 urte beteko ditu 2017an.



Euskal dantzak ere izan ziren 1966ko inaugurazio ekitaldian. Koloretan gordetzen den argazki bakarretakoa da hau.

# mende erdia bete du

**L**anak amaituta inaugurazio eguna heldu zen, 1966ko maiatzaren lehena. Oihartzun handia izan zuten irekiera ekitaldiko ospakizunek.

Orduko Usurbilgo Udaleko ordezkari batzorde batekin batera, garai hartan ohikoa izaten zen Elizakoa ere gerturatu zen. Argaia gotzaina buru zuen ordezkari bat. “Kanpoko jende asko zen. Jende inportante asko etorri zen”, oroitzen du Parrokia Taldeak. Gotzainari arraun desfile batekin egin zitzaion harrera. Orioko abesbatza ere bertan omen zen. Berehala hasi ziren baliatzen gune berria; Pazko Eguneko komunio txikiak egun hartara atzeratu omen zituzten, “inaugurazioarekin batera egiteko”.

## Aginagaren bilgune

Inauguratuta jada, eraikineko horma barruko gunean, gaur arte bizirik mantendu den mu-



**Denborarekin teilatua, “erditik behera jaisten ari zen. Arriskua handia zen”. Teilatua bere lekura igo, egitura indartu eta lehen zuen karga gutxitu dute.**

## AZKEN 50 URTEOTAN

**“Elizako eraikina, gaur arte, Aginagako herri mugimenduen txokoa izan da”**

gimendua hasi zen. Urte haieran zinea jarri zuten. Taberna ireki zen, gerora jubilatuentzako Arrate Elkarte sortuko zuten. Kanpotik Aginagara

etorritako hiru monjen bizileku ere izan zen eraikina. Eliza garbi mantentzeaz arduratu edo hurrei musika irakasten zieten. Mediku kontsulta bat ere izan zuten. Josten ikasteko tailerrak antolatzen hasi ziren. Edota Zubietako Lanbide Eskola eraiki bitartean, aldi baterako lanbide eskola bertan kokatu zen. Aipatu eraikina, gaur arte izan da Aginagako herri mugimenduen txokoa.

## Urtemugako meza, ordutegi nagusian

50. Urtemuga, eraikina inauguratu zen egun berean ospatuko dute. Igandean, bazkari baten bueltan eta aurretik ezohiko ordutegian ospatuko den mezarekin. Aginagan igandero izaten dute meza, goizeko 10:30etan. 12:00etan Usurbilen izaten da. Maiatzaren 1ean ordea, Aginagan ospatuko duten egun berezia tarteko, ordutegiak trukatu dituzte. Hau da, 10:30etan izango da Usurbilgo meza. Eta 12:00etan Aginagakoa. Parrokia taldekoek berri eman digutenez, herritarrekin batera noski eta bost hamarkada hauetan Aginagan apaiz lanetan egon eta bizirik jarraitzen duten guztiak gonbidatu dituzte ekitaldira, nahiz argi denez, “igandea izanda,

etortzeko zaila izango duten”.

### Apaiz guztiak oroitu dituzte

Batzuk bizi dira, besteak hil ziren. Baina 1966. urtetik gaur arte Aginagako Parrokiak ezagutu dituen apaiz guztiak oroitu nahi dituzte urtemuga honetan: Antonio Jauregi, Xotero Plazaoa, Antonio Agirre, Luis Aranalde, Iñaxio Agirre, Horacio Argarate eta Ibon Alberdi.

### Eskerrak emateko eguna

Lerroon bidez, urte guztietan Aginagako Parrokiaren eraikitze lanetan eta gunea zutik mantentzen lagundu duten guztiei eskerrak helarazi nahi dizkiete. Eliz mailan, abesbatzan, administrazioan, diru bilketan, man-

tentze eta garbiketa lanetan... aritu diren guztien lan bolondresa goraiatu nahi dute.

Izen guztiak ezin aipatu, ziur baten bat ahaztuta geratuko litzateke eta. Baina aipamen berezia egin nahi diete Aginagako Parrokiak azken hamarkadetan izandako organistek; Agustín Furundarenari eta organo jole gisa 58 urte bete dituen Bitoriano Pikabeari.

### Maiatzak 1, igandea

■ 12:00 Meza Aginagako Elizan.

■ 14:00 Bazkaria Aginaga Sagar dotegian. Otordurako izen ematea asteazkenean itxi zuten.

■ Antolatzailea: Aginagako Parrokia.

## Aginaga, hilerridun herria

Asisko Frantzisko Deuna izena du urtemuga berezi baten ataria den Aginagako Parrokiak. Bere historia du atzean. Ba omen zen behin, Aginagan Franzisko izeneko bizilagun bat, Mexikoko erregeordearen idazkaria zena. Garai hartan Usurbilek bazuen Parrokiako eraikina. Kanpandorrek gabekoa ordea. Hutsune hau bete nahian, kanpandorra jarri nahian zebiltzan Usurbilen eta Franzisko aginagarrarengana laguntza eske joan omen ziren. “Usurbildik dirua edo urrea bidaltzeko eskatu zioten, eliza kanpandorrek gabe zela eta dorrea eraikitzeko”. Trukean ordea zerbait eskatu zien Franziskok: bere izena eramango zuen eliza eta hilerririk bat eraikitzea Aginagan. Garai hartatik, eta denbora pasa da ordutik, esaten omen da, Aginaga herria dela. Ez udalerririk delako, ez baitu Udalik, baina bai hilerririk. Aginagako Parrokia eta apaiz propioa izan ditu orain gutxira arte. Horacio Argarate izan zen azkena. Egungoa, Ibon Alberdi, Aginaga eta Usurbilgo parrokiatan dabil lanean.

## Eliza, berri berria

50. urtemuga itxura berrituta ospatuko dute. Iaz egindako berritze lanekin. “Asko kosta da. Lana eta diru handia, baina egin beharra zegoen”, aipatu digute Aginagako Parrokia Taldetik. Lanok garesti atera zaizkiela diote. Lehen zuen karga gutxitu dute, “80-100 tona gutxiagorekin jarri da teilatua”.

# Udajolasen izena emateko epea datorren astelehenean zabalduko da

**B**adator udaleku irekietan izen emateko garaia. NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak antolatutako Udajolasen matrikulatzeko astea izango da datorrena. Aldaketa nagusi bat bada aurtengoan. Gizarte segurantzako txartelaren kopia ere aurkeztu beharko baita. Adi zehaztasun hauei:

## Izen ematea

- Epea: maiatzak 2-6 (bi egunok barne).
- Tokia: NOAUA! Kultur Elkar-  
tea.
- Orduetgia: 10:00-11:00 goi-  
zez, 16:00-18:00 arratsaldez.
- Kuota: 80 euro. Familia uga-  
riek 65 euro (familia ugarien



**Maiatzaren 2an hasiko da izen-ematea. NOAUA! Kultur Elkarteen egoitzara etorri behar duzue, ondoko ordutegian: 10:00etatik 11:00etara goizez, eta 16:00etatik 18:00etara arratsaldez.**

txartela edo familia liburuaren kopia ekarri behar da).

- Aurkeztu beharrekoa:

izen-emate orria, ordainketa agiria eta gizarte segurantzako txartelaren kopia.

- Ordainketak: Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan (haurren izen abizenak adierazi): 3035 0140 34 1400025811

- Nori zuzendua: 4-12 urte arteko (HH3-LH6) haur eta gaztetxoak.

- Gehienezko plaza kopurua: 200.

- Oharra: behin izena emanda, ez da dirurik itzuliko.

## Udajolas 2016

- Epea: uztailaren 4tik 29ra.
- Orduetgia: 09:30-13:30.
- Oharra: guraso bilera, ekainaren 2an 17:00etan Potxoenean.
- Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkar-  
tea eta Usurbilgo Udala.

# BAZKIDEEN TXOKOA



**Maiatzak 6 ostirala, 22.00tan Sutegin**

*Herriak antzezlan*

**noaUA! euskararen aterpe**

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatuko ditugu apirilaren 29an



# Haur Eskolan matrikulatzeko garaia da

2016-17 ikasturtera begira jartzeko garaia dugu. Haur Eskolan zabalik dute matrikulazio epea, 2014az geroztik jaio diren haurrentzat. Goizez bideratu beharko da, 09:30-12:30 artean. Horretarako ordea, aurrez hitzordua eskatu 943 374 061 telefono zenbakian.

## Ate irekien egunak

### Lanbide Eskolan

Bestalde, irailetik aurrera Lanbide Eskolan ikasten hasi nahi duenarentzako ate irekien egunak antolatu dituzte maiatzaren 7an, eta 14an, 11:00-13:00 artean. Maiatzaren 11n, 18:00-20:00 artean. Instalakuntzak ezagutzeko bisita gidatua egin eta hezkuntza proiektua aurkeztuko da. Erdi



Matrikula osatzeko alde aurretik hitzordua eskatu behar da 943 374 061 telefono zenbakira deituta.

eta goi mailako ziklook eskaintzen dituzte Zubietan: administrazioa, elektrizitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa, energia eta ura. Aurrematrikulazioa maiatzaren 23tik ekaina-

ren 3ra izango da.

### Informazio gehiago:

lhusurbil.eus  
eskola@lhusurbil.eus  
943 364 600

## Argia, ura eta gasa ordaintzeko arazoak dituzten herritarrek laguntza jaso dezakete

Oinarrizko laguntzarik jasotzen ez duten eta larrialdi egoeran dauden herritarrek argia, ura eta gasaren gastuen zati bat ordaintzeko laguntza jaso dezakete. Eusko Jaurlaritzaren eta Gurutze Gorriaren artean sinatutako hitzarmen honi buruzko informazio gehiago Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eskuratu ahal izango duzue.

### Hiru hilabeterako hornidura-txekeak

Laguntza hauen bidez, honakoa lortu nahi da: diru-sarrerera gutxi dituzten familiei etxebizitza horniduren (argia, ura eta gasa) gastuen zati bat ordaintzea, eta familia horiei, eskura dituzten beste baliabide batzuen berri ematea eta horietara bideratzea oinarrizko beharrianak arintzeko.

Ekimen honi esker, hiru

hilabeterako hornidura-txekeak emango dira, gehienez ere 80 eurokoak, hauek sei hilabetera arte luzatu ahalko direlarik.

Horretarako bi bide nagusi daude: Gipuzkoako Gurutze Gorriko eraikinerazuzentzea (Donostian, Ategorrieta 10) edota Usurbilgo Udaleko Gizarte zerbitzuetara zuzentzea, hauek laguntza eskaria zuzenean bideratuko luketelarik.

### Zubietako udako txokoetan izena

#### emateko epea zabalik

Aurrematrikulatzeko apirilaren 30era arteko epea dago. 20 euroko ordainketa egin eta inskripzio orri bat bete beharko da, "norberaren beharrak zehaztuz". Zubietako Guraso Elkarteak antolatutako txokoetan matrikulatzeko epea, maiatzaren 2tik 20ra izango da. Tarte horretan, "matrikula orria bete beharko da eta epe barruan bakoitzak dagokion kuota ordaindu beharko du". Izen emateko idatzi zubieta-txoko@gmail.com helbidera edo Zubietako Eskolan eskura ditzakezue inskripzio orriak.

### 66ko kinto afaria

Larunbat hau baino lehen eman behar dute izena, aurten 50 urte beteko dituzten herritarrentzat antolatu duten kinto afarira joan nahi dutenek. 45 euroko ordainketa egin beharko da, kontu zenbaki honetan: ES41 2095 5069 0091 1591 6891.

Maiatzaren 14an bilduko dira Olarrondo jatetxean, 21:00etan. "Afalurretik Bordatxoan elkartuko gara 19:00etan".

### 71ko kinto afaria

Maiatzaren 14an bilduko dira bazkari baten bueltan, Saizarren. Lehenago, 12:00etan jarri dute elkartzeko hitzordua, Bordatxo tabernan. Izen emateko zerrenda Txiriboga tabernan jarriko dute. Maiatzaren 12a baino lehen apuntatu beharko da.

JUBILAZIOAGATIK  
**LIKIDAZIOA**  
OIHAL DENDA  
UUSTIN KALEA 11, LASARTE-ORIA

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**EROSKI** city  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**Patricia** jatetxea  
· bazkariak EGUNERO  
· afariak, asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

# Asteburu honetan hasiko da 44. Usurbilgo Esku Pilota Txapelketa



Iazko txapelketako garaileak, finalistak, antolatzaileak eta udal ordezkariak.

Larunbat honetan abiatuko da herriko pilota txapelketa beteranoe-na: Usurbilgo 44. Esku Pilota Txapelketa. Orain hasi eta Santixabel jaiak hasi bitartean, astebururo kanporaketak jokatuko dira. Finala, nola ez, jaietako egun handian jokatuko da: uztailaren 2an.

## Apirilak 30 larunbata

11:00etan Usurbilen

Nagusiak 1. Maila

Mitxelena-Mendi (Bera)

Lizaso-Erreka (Billabona)

Lertxundi-Aranalde (Orio)

Adonis-Aranguren (Amezketeta)

Urmeneta-Aranburu (Errenteria)

Fernandez-Ortiz de Urbina (Antigua)

## Maiatzak 1 igandea

11:00etan Usurbilen

Nagusiak 1. Maila

Iribar-Salegi (Zestoa)

Urbietta-Iruretagoiena (Asteasu)

Eskudero-Aizpuru (Andoain)

Flores-Arzallus (Oiartzun)

Antolatzailea: Pagazpe Pilota Elkartea.

## Oiardo Kiroldegian kirol jarduera eta ur sorospen zerbitzua esleitzeko deialdia

Bi urtetarako kontratua izango da, "beste urte beteko bi epez luzagarria" izango dena. Esleipen deialdi honetan parte hartzeko interesa dutenek, 20 eguneko epean aurkeztu beharko dituzte eskabideak. Agiriak eta informazio gehiago jasotzeko, Usurbilgo Udalera jo dezakezue asteleheneretik ostiralera goizez, 08:00-14:30 artean, deitu 943 371 951 telefono zenbakira, edo idatzi email bat, kontratazioa@usurbil.eus helbidera. Prozesu honen berri ere usurbil.eus udal web orrialdean emango dute.



Agiriak edota informazio gehiago Udaletxean jaso daitezke.



## Bi lagunentzako otordua Saizarren, Pagazperi esker

Irudiko laguna, Patxi Artea ga duzue, berriki Pagazpe Elkartek egin duen egutegi-ko zozketako irabazlea. Sari bikoitza irabazi du, 4.020 zenbaki saridunaren jabeak; 2 lagunentzako otordu bana, Saizar eta Aginaga sagardotegietan. Zorionak!

## Futbola Haranen

Apirilak 30, larunbata

10:30 Alebin neskak:

Udarregi 6A-Urnieta 5

## Yoga eskaintza

zabalagoa Oiardo

Kiroldegian

Maiatzetik aurrera ostegunetan ere yoga saioak Oiardo Kiroldegian. Goizez, 09:00-10:30 artean eta arratsaldetan, 19:00-20:30 artean. Informazio gehiago: 943 372 498.

## Herri Urratserako

irteeran izena

emateko epea, ixtear

Maiatzaren 7tik 8ra Ereñozu eta Senpere arteko bidea oinez osatu nahi duenak, ostegun hau baino lehen eman behar du izena Andatza M.K.T.-koek antolaturiko txangoan. Maiatzaren 4a baino lehen, Lizuniaga eta Senpere lotuko dituen bide zatia maiatzaren 8an egin nahi dutenek. Hauek dira ordainketak egiteko kontu zenbakiak:

Rural Kutxa:

3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank:

2095 5069 0710 6848 9805

andatzamendizale.info

**E**uskadiko txapeldun soilik ez, asteburuan Pozuelo de Calatravan (Ciudad Real) jokatu duten Espainiako sektoreko txapeldun orde ditugu Usurbil Kirol Elkarteko jubenil neskek. Zorionak! Hiru neurketatik bi irabazi zituzten. Bat tarte handiz gainera, gol kopuruan bikoiztera ere heldu ziren usurbildarrak. Hirugarren eta azken partida ordea gutxigatik, baina galdu zuten. Berdin-du edo irabazi beharra zuten maiatza hasieran jokatuko den Espainiako azken faserako sailkatzeko. Baina ez zen posible izan.

Halere, ez ahaztu, Euskadiko txapeldunak ditugu jubenil neskek. Espainiako sektorean txapeldun orde amaitu dute. Asteburuko faseko hiru neurketatik bi irabazita, gogor lehiatuta eta Estitxu Berasategi jokalaria, partidetak batean jokalaria onenaren saria jasota itzuli dira etxera.

Egin duten denboraldia bikaina izan da. Apirila hasieran, Euskadiko txapelketako azken fasea jokatu eta irabazi egin



zuten. Duela bi aste, senior nesken taldekoek fase bera jokatu behar zutenean, haiek laguntzen izan ziren. Euskadiko txapeldun amaitu zuten baita. Taldearentzat erabakiorra zen joan den asteburuan, Espainiako sektorean, txapeldun orde ditugu.

### Herritarren babesa

Urrutira iritsi da taldea. Eta Pozuelo de Calatrava joandako usurbildarrek, nahiz herritik ere, hala adierazi diete taldekoiei. Sektoreko neurketetan, etengabeak izan ziren “Geu-

ria da!” eta “Usurbil txapeldun!” edota “Aupa Usurbil!” bezalako animuak. Streaming bidez zuzenean eskaini zituzten neurketetan gainera, euskara ere irakurri genuen baita, Pozuelo de Calatravako Kiroldegiko horman: “Aupa Usurbil! Egurra nextkak!” zioen pankarta eseki baitzuten usurbildarrek.

### Emaitzak

- Usurbil K.E. 24-20 Nazareno
- Usurbil K.E. 43-17 Aceuchal
- Pozuelo de Calatrava 28 - 24 Usurbil K.E.

## Ikusgarria izan zen Tximeleta taldeen erakustaldia

**E**rakustaldi bikaina eskaini zuten Tximeleta taldeetako kideek, larunbatean soinketa erritmikoko topaketan parte hartu zuten 300 neska-mutilek. Musika doinu ezberdinen erritmora txikienek pilota eta uztaiekin eta handienek berriz, uztai-mazoekin eta xingola-pilotarekin emanaldi ederra eskaini zuten.



Larunbatean ospatu zen Tximeleta eguna Oiardo kiroldegian. Eguneko argazki eta bideo gehiago [noaua.eus](http://noaua.eus) web orrian.

### Eskubaloi partidak

#### Oiardo Kiroldegian

**Apirilak 30, larunbata**

- 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5C-Urmieta 5B
- 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Udarregi 5B
- 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6B-Urmieta 6B
- 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6C-Urmieta 6A
- 11:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Urmieta 6C
- 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Ereintza A
- 16:00 Alebin neska-mutilak, Errendimenduzko Gipuzkoako Txapelketa: prestakuntza saioa.
- 18:00 Senior mutilak, 1. Nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Pulpo K.E.

#### Maiatzak 1, igandea

- 11:45 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Leizaran A

### Eskubaloia, selekzioa

#### Maiatzak 1, igandea

- 09:00-10:30 Infantil mutilen Gipuzkoako Selekzioaren entrenamendu saioa, Donostiako La Salle Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko Udarregi A taldeko Julen Lejardi eta Udarregi B taldeko Eneko Furundarena deitu dituzte hitzordu honetara.
- 12:00-13:30 Infantil nesken Gipuzkoako Selekzioaren entrenamendu saioa, Donostiako La Salle Kiroldegian: Usurbil K.E.-ko jokalaria Aitana Davila deitu dute hitzordura.

### Pilota partidak,

#### Udaberri Txapelketa

**Apirilak 28 osteguna**

**20:00etan, Aginagan**

**Udaberri laurdian txapelketa**

**Nagusiak 1.go maila**

PAGAZPE - AURRERA SAIAS (Asier Katalina) (Labaka)

**Kadete 1.go maila**

PAGAZPE - MUNDARRO

(Imanol Galarraga) (Urdangarin)

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 60 metro, 140.000 euro. [Tel: 636393237](tel:636393237)

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m<sup>2</sup>. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukalde jantokia aparte duela. [605 707 642](tel:605707642).

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. [689 58 39 21](tel:689583921).

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro ([620826891](tel:620826891)).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. [615 758 476](tel:615758476).

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukalde, komuna, trastelekua. Dena kanporaldera. [607 572 106](tel:607572106)

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. [Tel. 646 663 405](tel:646663405).

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. [646344847](tel:646344847)

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. [637 309 209](tel:637309209).

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. [665736896](tel:665736896)

Etxe bat salgai Munalurran.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: [943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus](mailto:943360321@erredakzioa.noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Dena kanpo aldera. 3 gela; sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. [Tel. 637 225 620](tel:637225620).

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanporaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, [678 581 991](tel:678581991).

## Alokairuan

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. [699 680 265](tel:699680265).

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. [632129182](tel:632129182) Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. [Tel. 686 554 145](tel:686554145). Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelek posible bada. [648 220 432](tel:648220432).

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. [Tel. 603 336 046](tel:603336046).

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. [627 496 740](tel:627496740). Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabal. Behoko solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. [Tel. 655 708 276](tel:655708276).

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. [661 378 340](tel:661378340).

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel:

[620 708 265](tel:620708265) / [686 143 7866](tel:6861437866).

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. [Tel. 665 319 105](tel:665319105).

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. [Prezio ona. 657 535 299](tel:657535299).

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. [664885737](tel:664885737).

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. [682 214 506](tel:682214506).

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). [674463942](tel:674463942)

## MOTORRA

## Salmenta,

## garaieak

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. [Argitsuak. 671 547 567](tel:671547567).

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. [600 369 013 / 943 371 827](tel:600369013)

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. [Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557](tel:653380557).

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. [671547567](tel:671547567)

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. [Tel. 679 732 489](tel:679732489).

Garaje itxi bila nabil. Moto-

rra uzteko izango litzateke. [645720571](tel:645720571)

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. [615149900](tel:615149900).

Moto bat salgai, Kymco markakoa. [People 125. 618 963 385](tel:125618963385).

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. [607 333 966](tel:607333966).

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Atxega jauregian plater garbitzalea behar dugu. Interesatuok idatzi email bat: [atxega@atxegajauregia.com](mailto:atxega@atxegajauregia.com)

Estetizista bat behar da ilea-paindegi batean lan egiteko. [943361971](tel:943361971)

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. [Tel. 606 661 048](tel:606661048).

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. [Tel. 673 256 566](tel:673256566).

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. [629 110 310](tel:629110310).

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzale tituluarekin. [666 798 804](tel:666798804).

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. [Tel. 667 281 660](tel:667281660).

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. [631 108 012](tel:631108012)

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. [619 355 819](tel:619355819)

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. [619 355 819](tel:619355819)

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketean. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. [Tel. 632 797 416](tel:632797416).

Senar-erazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. [Tel. 631 916 262 / 631 882 360](tel:631916262).

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. [Tel. 631 916 262](tel:631916262).

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. [Tel. 631 882 360](tel:631882360). Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrek zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. [660 041 361](tel:660041361)

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... [Tel. 688 889 214](tel:688889214).

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. [Tel. 622 925 562](tel:622925562).

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. [671 547 567](tel:671547567).

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. [Tel. 675 703 163](tel:675703163). Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketak egiteko. [Tel. 620 625 823](tel:620625823).

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak



## Zorionak Markel!

Sei urte beteko dituzu maiatzaren 2an. Ondo ondo pasa eta muxu handi bat familiaren partez.



## Zorionak Ani!

Apirilaren 29an 3 urte beteko dituzu! Muxu erraldoi bat potxola!



## Zorionak Haritz!

Apirilaren 27an 9 urte beteko dituzu eta denok elkartuko gara hori ospatzeko!

## Heriotzak

Belén Liñan Martínez

82 urterekin hil zen apirilaren 21ean Usurbilen



zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketara lanak egiten, jatekaren batean harraskako garbiketara egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegi lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituladuna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki

etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketara, plan-txatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan

zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona helduak ezinduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoiztutan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketara egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketara... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

#### BESTELAKOAK

Gazteentzako logela bat, berria eta argia. Umeentzat "Maxico-si-a" handia 9 - 15 kile, jolastoki bat, hamaka bat eta bidaiatzeko sehaska bat. 673 256 566.

Mahaspildegia elkartean plaza bat salgai. Tel. 608 772 013.

NOAUAren aurrean domina bat aurkitu da. Galdu baduzu NOAUAtik pasa. Dominan Diputacion de Ciudad Real jartzen du.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparitu nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikrokro-txipa jarrita ditu. Telefono zenbakiak: 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko gara-

jeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailan jaioa. Norbait aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Oraindik garantian dagoen sukaldeko indukzio plaka bat salgai. Tel. 645 701 879.

Egurarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriberan eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarekin, aurkitu baduzu eraman NOAUAra mesedez.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure makota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefono zenbakia: 688 888 176. Pablo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 28** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 29** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 30** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 01** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Astelehena 02** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteartea 03** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteazkena 04** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

## Apirilak 28 - maiatzak 08

**Osteguna 05** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 06** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 07** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 08** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda apirila

## 29 ostirala

- Hilabeteko azken ostiraleko elkarretartzea 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- "Berri ona" filma Sutegin 22:00etan Sutegin. Sarrera 5 euro. Aldez aurretik Lizardin salgai, egunean bertan lehiatilan.

1936ko udaberrian iritsi zen Altsasura Marino Aiera apaiza. Herritarren arteko liskarretan ez sartzeko esan zion Francoren altxamenduaren bezperetan erretiroa hartzekoa zen apaiz zaharrrak. Aiera aurrerakoia zen, ordea. Hilketen lekuko izatea egokitu zitzaion, eta bortizkeria kritikatu zuen ahal izan zuen guztietan. Gerra ondoren Argentinara joan, eta *No me avergoncé del evangelio* (Ez nintzen ebanjelioaz lotsatu) idatzi zuen, Altsasun bizitakoaren hausnarke-ta. Marino Aiera apaizaren biografia oinarri hartuta, maitasun istorio bat filmatu zuen Helena Tabernak.

### 'Berri ona' filma

- Apirilak 29 ostirala, 22:00etan Sutegin.
- Sarrerak: 5 euro Lizardin aldez aurre-

## 30 larunbata

- "Landareen bizimodua. Ilargiaren eragina". Sagarrondotik sagardora ikastaroa. 9:00-13:00 Potxoenean.
- Kantu-jira 19:00etan Mikel Laboa plazan.



tik, eta egun berean lehiatilan.

- Zuzendaria: Helena Taberna.
- Aktoreak: Unax Ugalde, Barbara Goenaga, Guillermo Toledo, Gorka Aginagalde, Joseba Apaolaza, Mikel Tello, Klara Badiola...
- Iraupena: 103 minutu.
- Antolatzailea: Jexux Artze K.E.

## 01 igandea

- Aginagako Elizaren 50. urtemuga festa 12:00etan Meza Aginagako Elizan. 14:00etan bazkaria Aginaga Sagardotegian (bazkarirako, aldez aurretik eman behar zen izena).

### Datozenak

### 'Neskatoak'

#### dokumentala Sutegin

Martxoan aurkeztu zen "Neskatoak" dokumentala. Jon Abrilek zuzendua, Frankismo garaian Nafarroatik Iparraldera lanera joandako emakumeen historia biltzen du. Datorren asteazkenean ikus ahal izango dugu, maiatzak 4, 19:00etan Sutegin.



### Taper sex feminista

Grina, jolas eta jostailuen inguruko taper sex feminista antolatu du Usurbilgo Udaleko Sexu Aholkularitza Guneak, maiatzaren 6rako 18:00-21:00 artean Potxoenean. Aholkularitza guneko sexologo Elena Jimenezek eta Goxo goxo erotikak dendako arduradun Goizeder Salegik bideratuko dute saioa. Parte hartu nahi dutenek, eman dezatela izena aurrez: [sexuaholku@usurbil.eus](mailto:sexuaholku@usurbil.eus)  
697 919 516 eta 943 377 110

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**Otar-Goxo**  
El ikagaiak

Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**ELORZA**

O BRAK ETA  
ER REFORMAK S. L.

**661 804 688**

San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)



# LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

Zure  
au  era



- **D.B.H.**
- **BATXILERRA**

**AURREMATRIKULAZIOA**  
maiatzaren 2tik 12ra



lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

[www.instilasarte.net](http://www.instilasarte.net)



Jon Abril Olaetxeak zuzendutako dokumentala

## neskatoak

Emakumeak Ipar Euskal Herrian lanean, frankismo garaian



**MAIATZAK 4**  
**A S T E A Z K E N A**  
**19:00 SUTEGIN**  
**SARRERA: DOAN**

**noqua**



aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz pasatzeko aukera



# udajolas

2016

udaleku irekiak

Udajolas Usurbilen erroldatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gazte-txoei zuzendua dago. Uztailaren 4an hasi eta 29an amaituko da eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Gehieneko plaza kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa **LABORAL KUTXA**ko kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da **HAURRAREN IZEN-ABIZENAK** adieraztea:

**3035 0140 34 1400025811**

Udajolaseko guraso bilera **ekainaren 2an** (osteguna) izango da Potxoenean, arratsaldeko **17.00etan**

**OHARRA:** Behin izena eman ondoren, ez da dirurik itzuliko.

**Izen emateko epea:** maiatzaren 2tik 6ra (biak barne)

**Lekua:** Noaualren egoitzan (Bordaberri kalea 3)

**Izen emateko ordutegia:** 10:00-11:00 eta 16:00-18:00

**Kuota:** 80 €

**Famili ugaria:** 65€ (familia ugariaren txartela edo familia liburuaren kopia ekarri behar da).

**Aurkeztu beharrekoa:** Izen-emate orria, ordainketa-agiria eta gizarte segurantzako txartelaren kopia.



**noaua**



Usurbilgo Udala